

ORDIZIAKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAREN ANTOLAMENDU- ETA FUNTZIONAMENDU-ARAUTEGIA

<u>Aurkibidea</u>	<u>orr.</u>
Sarrera	2
Atariko titulua. Xedapen orokorrak	2
I. Titulua. Ordiziako HEOren antolamendu-definizioa	5
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	5
II. kapitulua. Gobernu-organo kolegiatuak	7
I. atala. Ordiziako HEOren OOG	7
II. atala. Irakasleen klaustroa	10
III. atala. Zuzendaritza-taldea	12
III. kapitulua. Pertsona bakarreko gobernu-organoak	14
IV. kapitulua. Irakaskuntza-koordinazioko organoak	19
I. atala. Irakasleak	19
II. atala Tutoretzak	21
III. atala. Koordinazio pedagogikoko batzordea	21
IV. atala. Hizkuntza-mintegiak eta mintegi-burutza	22
V. atala. Ikasturteko eta / edo mailako irakasle taldeak	26
II. titulua. Elkarbizitza-arauak	29
I. kapitulua. Printzipio orokorrak	29
II. kapitulua. Ikasleen eskubideak	29
III. kapitulua. Eginkizunak betzea	35
III. titulua. Errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiboa	37
Eusko Jaurlaritzaren eranskinak	40

ORDIZIAKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAREN ANTOLAMENDU- ETA **FUNTZIONAMENDU-ARAUTEGIA**

HITZAURREA

Ordiziako HEO Euskal Autonomia Erkidegoko izaera ofizialeko ikastegi bat da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sortua; HEOk irakaskuntzak izaera espezializatukotzat jotzen dira.

Hizkuntza-irakaskuntza hiru ziurtapen-mailatan gauzatu daiteke. Maila horien helburua, ikasleak hizkuntza modernoan oinarritzko ezagutzan, tarteko ezagutzan edo ezagutza aurreratuan gaitzea da, hurrenez hurren.

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ordiziako Hizkuntza Eskola Ofizialaren izendapena, irakaskuntzak eta izaera

1. Ordiziako Hizkuntza Eskola Ofiziala ikastegi publiko bat da eta, erregimen bereziko irakaskuntzen barruan, 16 urtetik gorako pertsoneri (kasu batzuetan, 14 urtetik gorakoei) hizkuntza-irakaskuntza eskaintzen die.

2. Hizkuntza-irakaskuntza bereziek, ikasgai bakar gisa, ikasketa-xede den hizkuntza jorratuko dute, lau trebetasunetan (ahozko eta idatzizko ulermena; eta ahozko eta idatzizko adierazpena) Oinarritzko Mailetarako eta bost trebetasunetan (ahozko eta idatzizko ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, eta bitartekotza) Tarteko mailan eta maila aurreratuan. Ikasketa-plana hiru mailatan egituratuko da:

- a) Oinarritzko maila (A1/A2 Europako Erreferentzia Marko Bateratua)
- b) Tarteko maila (B1/B21/B22 Europako Erreferentzia Marko Bateratua)
- c) Maila aurreratua (C1 Europako Erreferentzia Marko Bateratua)

Oinarrizko mailaren helburu nagusia ikaslea bai ahoz, bai idatziz, ikasten duen hizkuntza nahikoa erabiltzeko gai izatea da, jaso eta ekoizteari dagokionez, baita hizkuntza desberdinetako hizlarien artean bitartekari gisa aritzeko gai izatea ere berehalako beharra eragiten duten eguneroko egoeretan, erregistro desberdinetan eta hizkuntza estandarrean testu laburrak ulertu eta ekoiztu behar direnean, gai orokorren inguruko alderdi jakin batzuen ingurukoak direnean eta sarritan erabiltzen diren esaera, egitura eta lexikoa erabiltzen direnean. Maila

Oinarrizko mailak *Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komune*ko (A2) plataforma-maila dauka erreferentzia gisa.

Tarteko B1 mailako irakaskuntzaren helburua da ikasleak gai izatea hizkuntza erabiltzen den lekuetara bidaiatzen dutenean sortzen diren egoera gehienetan moldatzeko, beste hizkuntza batzuen hiztunekin harreman pertsonal eta sozialak hasi eta eusteko, aurrez aurre zein baliabide tekniko bidez, eta trukatzeko faktual errazak sortzen diren hezkuntza- eta lanbide-inguruetan aritzeko.

Horretarako, ikasleek lortu behar dituzten gaitasun horiei esker, hizkuntza erabili ahal izango dute nolabaiteko malgutasunez, erraztasun erlatibo eta zentzuzko zuzentasunez bai eguneroko egoeretan bai horren ohikoak ez diren esparru pertsonal eta publikoan eta hezkuntza- eta lanbide-esparruetan, erregistro formal, informal edo neutroko eta hizkuntzaren aldaera estandarreko ahozko testu eta testu idatzi laburrak edo ertainak bakarrik zein beste batzuekin sortu eta prozesatzeko, gai pertsonalei eta eguneroko gaiei edo gaurkotasuneko edo interes pertsonaleko gai orokorren alderdi zehatz batzuei buruzkoak, egitura bakunak eta oso idiomatikoa ez den erreperitorio lexiko arrunta erabilita. Maila ertainak *Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komune*ko (B1) Atari maila dauka erreferentzia gisa.

Tarteko B2 mailako irakaskuntzaren helburua da ikasleak gai izatea hizkuntza erabiltzen den lekuetan independentziaz bizitzeko; beste hizkuntza bateko erabiltzaileekiko harreman pertsonal eta sozialak izateko, aurrez aurre zein urrutitik baliabide teknikoez baliatuta; hezkuntza-inguru tertziarioaurrean ikasteko, edo lanbide-inguru batean behar besteko eraginkortasunez jokatzeko, inguru horietan

ohikoak diren gaien gaineko lankidetzeta eta negoziazioa eskatzen duten egoeretan.

Horretarako, ikasleek lortu behar dituzte hizkuntza behar besteko jarioz eta naturaltasunez erabiltzea eta komunikazioa esfortzurik gabe gauzatzea ahalbidetzen duten gaitasunak, ohiko egoeretarako eta egoera espezifikokoago eta konplexuagoetarako, ahozko testuak eta testu idatziak ulertzeko, bakarrik zein beste batzuekin sortzeko eta prozesatzeko, gaiak abstraktuak zein zehatzak, edo gai orokorrak edo norberaren interesekoak edo espezializazio-arlokoak izanik, eta erregistroen, estiloen eta azentuen aldaera estandarrean, eta orotariko egitura konplexuak dauzkan hizkuntza batean, eta lexiko-errepertorioan ohiko erabilerako adierazpen idiomatikoak izanik, esanahiaren ñabardurak antzeman eta adierazi ahal izateko. *Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komune*ko (B2) maila aurreratua dauka erreferentzia gisa.

C1 maila aurreratuko irakaskuntzaren helburua da ikasleak gai izatea malgutasunez eta zehaztasunez moldatzeko, itxura batean esfortzurik gabe eta gabezia linguistikoak berdintze-estrategien bidez erraz gaindituta, era guztietako egoeretan, esparru pertsonalean eta publikoan; eta horretaz gain, hirugarren mailako ikasketak egiteko edo esparru akademikoko mintegietan edo ikerketa-proiektu konplexuetan segurtasunez parte hartzeko, edo ingurune profesionaleko jarduera espezifikoetan eraginkortasunez komunikatzeko.

Horretarako, ikasleek lortu behar dituzte hizkuntza erraztasun, malgutasun, eraginkortasun eta zehaztasun handiz erabiltzea ahalbidetzen duten gaitasunak, ahozko testu eta testu idatzi luzeak, egitura konplexukoak eta zehatzak ulertzeko, bakarrik zein beste batzuekin sortzeko eta prozesatzeko, alderdi abstraktukoak edo zehatzetakoak izan zein gai orokorrak edo espezializatuak izan; nahiz eta norberaren espezialitatetik kanpokoak izan, hizkuntzaren aldaera batean baino gehiagotan sortuak izan, egitura asko eta konplexuak eta adierazpen espezializatu, idiomatiko eta lagunartekoak dauzkan lexiko-errepertorio zabala izan, eta esanahi-ñabardura sotilak antzeman eta adierazteko moduan. Gaitasun-mailak *Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komune*ko (C1) gaitasun-maila dauka erreferentzia gisa.

3. Hizkuntza-ikasketa espezializatuera sartzeko, ezinbesteko baldintza izango da izena ematen den urtean 16 urte beteak izatea. Halaber, 14 baino gehiago dauzkaten pertsonak ere sartu ahalko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasten dituzten hizkuntzak ez diren beste hizkuntza batzuk ikasteko.
4. Maila guztietako irakaskuntzak erregimen ofizialean eta librean egin ahalko dira.
5. Hizkuntza bereko irakaskuntzak ezin izango dira erregimen ofizialean eta librean egin ikasturte berean.
6. Hiru maila horietako irakaskuntzez gainera, Ordiziako HEOK hizkuntza-gaitasunak hobetzeko ikastaro espezializatu edo monografikoak antolatu eta irakatsi ahalko ditu, aldezturik Hezkuntza Administrazio eskudunaren baimena eskuratuta.

I. TITULUA. ORDIZIAKO HEO-REN ANTOLAMENDU-DEFINIZIOA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Gobernu-organoak

1. Ordiziako HEOK kide anitzeko eta pertsona bakarreko gobernu-organoak izango ditu, dokumentu honetan ezartzen diren eskumen eta atribuzioekin:

- a) Kide anitzekoak: Ordezkaritza Organo Gorena edo antzinako Eskola Kontseilua (aurrerantzean, OOG), irakasle-klaustroa eta zuzendaritza-taldea.
- b) Pertsona bakarrekoak: Zuzendaria, Ikasketa-burua eta Idazkaria.

3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea

Ordiziako HEOn, ikasleen edo horien ordezkarien, administrazio eta zerbitzuetako langileen eta Udaleko langileen partaidetza OOGaren bidez gauzatuko da.

4. artikulua. Koordinazio didaktikoko organoak

Ordiziako HEOKo koordinazio didaktikoko organoak izango dira, klaustroaren zuzendaritzapean, irakasleak, tutoretzak, koordinazio pedagogikoko batzordea, mintegi didaktikoak eta maila eta / edo taldeko taldeak.

5. artikulua. Gobernu-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen printzipioak

1. Ikasgelako partaidetzarako, koordinazio didaktikorako eta gobernurako organoek zainduko dute ikastegiko jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean jasotako printzipio eta balioekin bat garatzen direla, Lege horretan eta indarrean dauden gainerako xedapenetan ezarritako hezkuntza-helburuak gauzatuz eta irakaskuntzaren kalitatea bermatuz.

2. Gainera, partaidetzarako, koordinazio didaktikorako eta gobernurako organoek, nor bere eskumen-esparruan, bermatuko dute ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileei onartutako eskubideak betetzen direla, eta dagozkien betebeharrak bete daitezen zainduko dute.

3. Era berean, hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastegiko bizitzan, kudeaketan eta ebaluazioan eraginkortasunez parte hartzea sustatuko dute.

6. artikulua. Antolamendu eta Funtzionamendu Arautegia (AFA) osatzen duten dokumentuak

Lau dokumentu egituratzen dute ikasturtearen antolamendua eta horiek urtero berrikusten ditu hezkuntza-sailak:

- Matrikula ofizialerako onarpen-ordena
- Azterketa libreak arautzen dituen ebazpena
- Ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpena
- Ebaluazio-ordena

AJAn jasotzen ez diren gai guztietarako, edo horretan jasotakoarekin bat ez datozen gaietarako, lau dokumentu hauek edo Euskal Eskola Publikoaren Legea izango dira

erreferentzia.

7. artikulua. AFaren aldaketak

Dokumentu honetan jasotako puntuak aldatu ahal izateko, OOGaren onarpena beharko da.

II. KAPITULUA. GOBERNU-ORGANOAK KOLEGIATUAK.

I. ATALA. ORDIZIAKO HEO-ren OOG

8. artikulua. Ordiziako HEOren OOGaren izaera eta osaketa

1. Ordiziako HEOko OOG ikastegiko gobernuan hezkuntza-komunitateko zenbait kide barne hartzen dituen partaidetza-organoa da. Ordiziako HEOko Ordezkaritza Organo Goren izendapena izango du.

2. OOGaren eskumenak: Ordiziako HEOko OOGak Euskal Eskola Publikoaren Legearen 31. artikuluan jasotzen diren atribuzioak ditu.

3. Ordiziako HEOren OOG honako kide hauez osatuta egongo da: (Euskal Eskola Publikoaren Legea, 32.22018ko urriaren 4ko Erabakia, Hezkuntza sailburuordearena)

- a) Zuzendaria, lehendakaritza izango duena.
- b) Ikasketa-burua.
- c) Ikastetxeko irakasle guztiak (zuzendaritza taldekideak barne)
- d) Aurrean aipaturiko kideak beste ikasle- kopurua
- f) Administrazioako eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.
- g) Udaleko ordezkari bat.
- h) Ikastetxeko idazkaria, OOGeko idazkari izango dena, hitzarekin baina botorik gabe.

9. artikulua. OOG hautatzea eta berritzea

OOGeko kideak erditan berrituko dira bi urtean behin eta txandaka, horiek arautzen dituen Dekretuan jasotakoarekin bat eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean argitaratzen diren deialdiekin bat.

10. artikulua. Lehendakaria eta Idazkaria ordezkatzeari

1. Zuzendaria egon ezean, ikastegiko lehendakaria Ikasketa-burua izango da edo, hala badagokio, ikastegiko OOGeko kide diren irakasleetan antzintasun handiena duena.
2. Idazkariaren ordezkari, ikastegiko OOGeko kide diren irakasleen artean, antzintasun gutxienekoak jardungo du, eta bozkatzeko eskubidea mantenduko du.

11. artikulua. OOGaren funtzionamendu-erregimena

1. Ohiko bileretan, Zuzendariak OOGeko kideei deialdia bidaliko die, bileraren gairerendarekin eta eztabaidatuko eta, hala badagokio, onartuko den dokumentazioarekin, kideek gutxienez hirurogeita hamabi ordu lehenago jasotzeko moduan.
2. Gainera, ezohiko deialdiak egin ahalko dira, gutxienez berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin, jorratuko diren gaien izaerak edo premiak direla-eta, hala egitea komeni denean.
3. OOGa, gutxienez, urtean hiru aldiz bilduko da, eta ikastetxearen zuzendariak deialdia egiten duen guztietan, edo klaustroko kideen herenak, gutxienez, eskatzen duen guztietan. Nolanahi ere, derrigorrez egin beharko dira ikasturte hasieran eta amaieran bilera bana. Kide guztiek nahitaez joan beharko dute OOGak egiten dituen bileretara.
4. OOGak akordioak gehiengo sinplez onartuko ditu, honako kasu hauetan izan ezik: hezkuntza-proiektua, urteko plana eta AFA eta horren aldaketak, orobat Zuzendariaren izendapena errebokatzeko proposamena, kasu horietarako bi heren beharko baitira.

5. Araudi honetan edo hezkuntzaren arloko legedian aurreikusita ez dauden alderdiei dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legeko II. Tituluko 2. kapituluan ezarritakoari jarraituko dio Klaustroaren funtzionamenduak.

12. artikulua. OOGaren funtzioak

OOGaren **funtzioak** Euskal Eskola Publikoaren Legeak 31.2 artikuluan esleitzen dizkionak dira:

- a. Ikastegiaren hezkuntza-proiektua, antolaketa- eta funtzionamendu-arautegia eta kudeaketa onestea; horiek guztiak betetzen direla zaintzea; eta horien guztien ebaluazioa egitea.
- b. Prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa eta urteko kudeaketa-programa onartzea, eta haien segimendua eta aldi behingo ebaluazioa bere gain hartzea.
- c. Ikastegiaren urteko memoria onartzea.
- d. Zuzendaria aukeratzea eta, horrek proposatuta, Ikastegiko gainerako pertsona bakarreko organoak izendatzea. Zuzendariaren izendapena errebokatzea, edo Zuzendaria postutik kentzea, kideen bi herenek aurrez hala adosten badute.
- e. Ikasleak onartu ala ez erabakitzea, indarreko legedian ezarritakoari jarraiki.
- f. Ikasleen diziplinari dagokionez sortzen diren gatazkak konpontzea eta beharrezko zehapenak jartzea, ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituzten arauak jarraiki.
- g. Beste zentro batzuekin elkarlan-harremanak ezartzea, kultura- eta hezkuntza-xedeetarako.
- h. Ikastetxeko instalazioen eta ekipamenduaren berrikuntza sustatzea, baita instalazioak eta ekipamendua zaintzen direla kontrolatzea ere.
- i. Zentroaren jardunbide orokorra gainbegiratzea, administrazio- eta irakaskuntza-arloetan.
- j. Lege horrek edo beste arau batzuk, nahiz Ikastegiaren antolamendu- eta funtzionamendu-arautegiak, esleitzen dioten bestelako edozein eskumen.

13. artikulua. OOGaren Batzordeak

1. OOGk batzorde iraunkor bat eratuko du Euskal Eskola Publikoaren Legean adierazten diren funtzioetan, eta osoko bilkuran esleitzen zaizkion funtzioetan, jarduteko. Gutxienez, honako hauez osatuta egongo da: Zuzendaria, Ikasketa-burua, Mintegi-buruak eta ikasle bat, bere sektoreak aukeratuta. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta boto haztatuaren sistema erabiliko da.

2. Batzorde iraunkor horrek batzorde ekonomikoaren funtzioak ere beteko ditu - OOGari gai ekonomikoen inguruan eta bizikidetzari loturiko esleitzen zaizkion gaiak jakinaraziko dizkio (ikastegian bizikidetzaren giroa mantentzeko loturiko funtzioak betetzea eta bizikidetzaren aurkako jarrerak eta hori larriki kaltetzen duten portaerak zuzentzeko neurriak ezagutzea, aplikatzea eta berrikustea).

3. OOGak beste batzorde batzuk eratu ahalko ditu gai zehatzetarako, sorkuntza-akordioak esleitzen dizkien eskumenekin eta formarekin. Sortzen diren batzorde guztiek, artikulua honetako aurreko bi ataletan zehaztutakoek barne, ikasketak, txostenak eta proposamenak egin ahalko dituzte beren eskumenekoak diren gaietan. Lehen aipatutako batzordeak bezalaxe egongo dira eratuta. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta boto haztatuaren sistema erabiliko da.

II. ATALA IRAKASLEEN KLAUSTROA

14. artikulua. Irakasle-klaustroaren izaera eta osaketa

1. Klaustroa, Ordiziako HEOk gobernuko organo izateaz gainera, irakasleen partaidetzarako berezko organoa da eta ikastegiko koordinazio didaktikorako organo gorena da; ikastegiko hezkuntza-alderdi guztiak planifikatzeko, koordinatzeko, erabakitzeko eta jakinarazteko ardura du.

2. Klaustroak zuzendaria izango du buru, eta ikastetxean lan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute. Klaustroaren Idazkaria Ordiziako HEOaren idazkaria izango da.

3. Zuzendaria ez badago, klaustroaren lehendakaria ikasketa-burua izango da eta, biak falta izanez gero, hierarkian antzintasun eta adin handieneko irakaslea izango da, ordena horretan. Idazkariaren ordeza, ikastegian behin betiko helmuga duen eta adin txikiena duen irakasleak jardungo du.

15. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

1. Klaustroa, gutxienez, urtean hiru aldiz bilduko da, eta zuzendariak deialdia egiten duen guztietan, edo klaustroko kideen herenak, gutxienez, eskatzen duen guztietan. Derrigorrez egin beharko dira ikasturte hasieran eta amaieran bilera bana.

2. Klaustroko kide guztiek nahitaez joan beharko dute klaustroak egiten dituen bileretara, eta ez joatea behar bezala justifikatu behar da.

3. Klaustroko kide guztiek dute bozkatzeko eskubidea, Idazkariak izan ezik. Bozka ezin izango da inolaz ere eskuordetu Klaustroko kideren bat ez dagoenean.

4. Klaustroko erabakiak gehiengo osoz hartuko dira (botoen erdia gehi bat) lehen botazioan eta gehiengo soilez, bigarrenetan. Hainbanakorik egonez gero, Zuzendariaren botoa izango da erabakigarria.

5. Ohiko bileren deialdia, gutxienez, hirurogeita hamabi orduko aurrerapenarekin egingo da. Salbuespen gisa eta jorratu beharreko gaien izaerak edo premiak hala eskatuta, ezohiko bilerak egin ahal izango dira. Horien deialdiak berrogeita zortzi ordu lehenago, gutxienez, egin beharko dira.

6. Klaustroko bileren akta egingo da eta hori hurrengo ohiko bilkuran onartu beharko da. Idazkariak transkribatu egingo du, dagokion dokumentuan.

7. Araudi honetan edo hezkuntzaren arloko legedian aurreikusita ez dauden alderdiei dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legeko II. Tituluko 2. kapituluaren ezarritakoari jarraituko dio Klaustroaren funtzionamenduak.

16. artikulua. Klaustroaren eskumenak

Irakasleen Klaustroari dagokio Euskal Eskola Publikoari buruzko legeko 35. artikuluan eta indarrean dauden gainerako xedapenetan ezarritako zereginak aurrera eramatea.

Irakasleen Klaustroaren **funtzioak** hauek dira:

- a) Zentroko irakaskuntza-jarduerak programatzea.
- b) OOGeko ordezkariak aukeratzea.
- c) Ekimenak sustatzea esperimenez edo ikerketa pedagogikoaren esparruan.
- d) Ikastegiaren ekintza didaktikoaren bilakaera aldi behin zenbatestea, proiektatutako helburuekin eta orientazioekin harremana duela egiaztatzeko.
- e) OOGari dagozkion proposamenak eskuratzea, AFA, eskolaz kanpoko jarduerak eta jardura osagarriak prestatzeko edo aldatzeko.

III. ATALA ZUZENDARITZA-TALDEA

17. artikulua. Zuzendaritza-taldea

1. Ordiziako HEOn, zuzendaritza-taldea jarraian aipatzen diren pertsona bakarreko organoenez osatuta dago; horiek modu koordinatuan lan egingo dute beren funtzioak betetzen:

- Zuzendaria
- Ikasketa-burua
- Idazkaria

2. Zuzendaritza-taldeak Euskal Eskola Publikoaren Legeko 36. artikuluan esleitzen dizkion funtzioak izango ditu, baita OOGak edo klaustroak esleitzen dizkion funtzioak ere, dagokion eskumen-esparruan.

a. Ikastetxearen zuzendaritzari eta koordinazioari buruzko irizpideak zehazterakoan, zuzendariari laguntzea, baita ikastetxearen funtzionamenduari dagokionez eragin handia duten erabakiak hartzerakoan ere.

b. Kudeaketa-proiektua eta prestakuntza-jardueren programa prestatzea, gainerako

mintegiekin lankidetzan, horiek guztiak OOGak onar ditzan.

c. Eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programak, nahiz aurreko atalean aipatzen diren jarduerak, gauzatzen direla koordinatzea eta ikuskatzea, eta irakasleei jakinaraztea.

d. OOGari proposatzea euskal eskola publikoko beste ikastetxe batzuekin lankidetzaharremanak ezar daitezen, baita askotariko proposamenak egitea ere, hartara Eskola Kontseiluak egokitzen jotzen badu, Hezkuntza Administrazioa bidal daitezen, beste erakunde batzuekin, kultura-mailako zein hezkuntza-mailako helburuak dituzten hitzarmenak sinatzeko.

e. Irakasle-taldeak antolatzea.

f. Klaustroaren eta OOGaren bileretan gai-zerrenda prestatzea.

g. Informaziorako bide egokiak ezartzea eta zuzendaritza- eta koordinazio-organoentzako beharrezko informazioa eskuragarri izatea.

h. Urteko memoriaren zirriborroa egitea, OOGak onar dezan.

3. Zuzendaritza-taldeak egokitzen jotzen duen hezkuntza-komunitateko edozein kide gonbida dezake bileretara, kontsulta-izaerarekin. Halaber, ikastegiko irakasleei eska diezaieke (batez ere mintegi-buruei eta proiektu zehatzen arduradun diren irakasleei) egokitzen jotzen dituen funtzioak bete ditzaten.

4. Zuzendaritza-taldeak kide guztien artean hartuko ditu kide bakoitzari dagozkion funtzioei loturiko erabakiak. Hori dela eta, organo horretan eztabaidatuko dira ikastegiko arazoak eta kide bakoitzak bere eskumen-esparruan beteko dituen erabakiak hartuko dira.

5. Oro har, astean behin bilduko da. Ohiko izaerarekin, astean behin bilduko da.

6. Diskrezioa eta konfidentzialtasuna bermatuko ditu administratzen den izaera pertsonaleko informazioa tratatzeko orduan.

III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO GOBERNU-ORGANOAK

18. artikulua. Zuzendaria

1. Ordiziako HEOkoko Zuzendaria ikastegiko ordezkaria da xede guztietarako; ikastegiko Hezkuntza Administrazioaren ordezkari naturala da eta Kide anitzeko Gobernu Organoetako lehendakaria da.

2. Horren eskuduntza eta eskumenak Euskal Eskola Publikoaren Legeko 34. artikuluan ezartzen dira.

- a. Ikastetxearen ordezkari ofiziala izatea.
- b. Ikastetxearen funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, ikastetxeko ekitaldi akademikoetarako eta ikastetxeko kide anitzeko organoen bileretarako deialdiak egitea eta haietako buru izatea.
- c. Ikastetxeko urteko kudeaketa-programaren arabera, gastuak baimentzea, eta ordainketak egiteko aginduak ematea.
- d. Behar diren lan-, zerbitzu- eta hornikuntza-kontratazioak egitea.
- e. Ziurtagiri eta agiri ofizialei oniritzia ematea.
- f. Arau, xedapen, proiektu eta jarduketa-programak eta ikastegiko jardunean eragina duten erabakiak betearaztea.
- g. OOGari Zuzendaritza-karguen izendapena proposatzea.
- h. Ikastetxeari atxikitako langile guztien buru izatea.
- i. Ikuskaritzara ikasleen hileko hutsegiteen parte bidaltzea, horretarako ezartzen diren epeen barruan.
- j. Zuzendaritza Taldearekin batera, Ikastegiaren martxa orokorra eta agertzen diren arazoak ezagutzea eta jarraitzea, ikastegian gertatzen denaren azken arduraduna izaki.
- k. Gai-zerrenda deitzea eta eskuragarri izatea eta Zuzendaritza Taldea, Klaustroa, OOG eta Batzorde Iraunkorra zuzentzea.
- l. Zuzentzen dituen organoetako erabakiak egikaritzea, edo beste batzuek egikari ditzaten bide ematea.
- m. Administrazioari ikastegiaren antolamendu onerako beharrezkoak diren langile-beharrak aurkeztea eta lurralde-ordezkaritzari beharrezko ordezkapenak egin daitezen eskatzea.

- n. Diziplina- eta bizikidetza-gaiak ebaztea, arautegi honetan ezartzen denarekin bat, irakasleei eta ikasleei dagokienez.
 - o. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak esleitzen dizkion guztiak, beste arau batzuk esleitzen dizkionak eta ikastetxearen Antolaketa eta Funtzionamendurako Arautegiak ezartzen dizkionak.
 - p. Ikastegiak inguruneko instituzioekin dituen harremanak sustatzea eta bultzatzea, batez ere hezkuntza-gaietan garrantzitsuak diren atazak gauzatzen dituzten organismo publikoekin.
 - q. Irakasleen eta mugape bereko bestelako hezkuntza-zerbitzu batzuen arteko koordinazio egokiari bide ematea, eta hezkuntza-eragile eskudunek eskatzen duten informazioa hornitzea.
 - r. OOGarekin batera, ikastegiko instalazioen erabilera zehaztea.
 - s. Indarrean dagoen arautegiarekin bat, ikastegiak zuzenean eman edo ukatu ditzakeen langileen baimen-eskaerak ezagutzea eta erabakitzea.
 - t. OOGaren eskumenei kaltetu gabe, ikasleei zigorrak ezartzea edo kentzea, ikasleen eskubide eta betebeharrak erregulatzen dituzten arauarekin bat.
 - u. Hezkuntza Administrazioari ikastegiko instalazioak berehala konpontzeko beharrak jakinaraztea.
 - v. Ikastegiko ordena akademikoa eta ohiko funtzionamendua mantentzeko beharrezko neurriak onartzea.
 - w. Ikastegiko jarduerari eta egoera orokorrari buruzko urteko memoria bat egitea.
 - x. Zuzendariari egokituko zaizkio, halaber, arauetan esleitzen zaizkion funtzioak ere.
3. Ordiziako HEOKo zuzendaria, zuzendaritza-taldeko kide gisa dagozkion eskumenez gainera:
- a. ikastegiko webgunearen arduraduna izango da.
 - b. Eskolako ikasturteko egutegia egingo du
 - c. lan-arriskuen prebentzioko arduraduna izango da.

19. artikulua. Ikasketa-burua

1. Ikasketa-buruak, zuzendaritza-taldeko kide izateagatik dagozkion eskumenez gainera, Euskal Eskola Publikoaren Legeko 41. artikuluan jasota dauden funtzioak beteko ditu.

Ikasketa-buruak, eskuordetzez eta Zuzendariaren agintaritzapean, ikasketa-burutzan jardungo du erregimen akademikoari dagokion guztian, eta mintegi-buruen eta tutoreen jarduerak koordinatuko ditu. (VIII. eranskina)

2. Zuzendaritza-taldeko esparru pedagogikoko kide arduradun gisa, ikasketa-buruaren araberakoak dira koordinazio pedagogikoa, irakasle-taldeak eta hezkuntza-zerbitzuak. Aldian behin, eta beharrezkoa den guztietan, organo horien jarduerak zuzendaritza-taldeari jakinaraziko dizkio. Irakasle-taldeetako arduradunen informazioa jasoko du, lan-planei, horien egitaritzari eta taldeek hartzen dituzten erabakiei buruz.

3. Ikastegiaren egoeran oinarrituta, Ikasketa Buruak, zuzendaritza-taldearen eta mintegien lankidetzarekin, proiektu zehatzen xede izango diren gaiak proposatuko ditu.

4. Ikasketa-buruaren eskumenekoak izango dira hauek:

- a) Irakasle zein ikasleek hezkuntza-jarduerak ezarritako planifikazioaren arabera bete ditzatela koordinatu eta bermatzea.
- b) Eskola-egutegia eta ordutegi akademikoak egitea, gainerako pertsona bakarreko organoekin lankidetzan, eta horiek zorrotasunez betetzen direla zaintzea.
- c) Irakasle bakoitzari ikastegiko unitate bat esleitzea, mintegien arabera.
- d) Ikasleen ebaluazio-prozesuak koordinatzea eta Mintegiek eta Administrazioak ezartzen dituzten irizpideak betetzen direla zaintzea.
- e) Idazkariarekin batera, ikasle libre eta ofizialen matrikulak antolatzea.
- f) Irakasle eta ikasleen bertaratzeko kontrol-mekanismoak ezartzea eta, kasu bakoitzean, dagozkion neurriak aplikatzea.
- g) Irakasleen baja edo absentziak gertatzen direnean, hutsik geratzen diren lanpostuak estaltzeko mekanismoak abian jartzea.
- h) Urteko memoria idaztea, Zuzendariarekin eta Idazkariarekin lankidetzan.
- i) Zuzendariak eskuordetutakoan, Batzorde Pedagogikoko bilerak zuzentzea.
- j) Diziplinari eta bizikidetzari loturiko gaietan esku hartzea, araudi honetan xedatutakoaren arabera.
- k) Irakasleen hileko falta-partea prestatzea.
- l) Zuzendaria ordezkatzeko, absentzia edo gaixotasun kasuetan.
- m) Urteko memoria idaztea, Zuzendariarekin eta Idazkariarekin lankidetzan.

5. Ordiziako HEOKo Ikasketa Burua, zuzendaritza-taldeko kide gisa dagozkion eskumenez gainera, ikastegiko webgunearen arduraduna izango da.

20. artikulua. Idazkaria

1. Idazkariak, zuzendaritza-taldeko kide izateagatik dagozkion eskumenez gainera, Euskal Eskola Publikoaren Legeko 42. artikuluan jasota dauden funtzioak beteko ditu. Eskuordetzaz, eta Zuzendariaren agintepean, ikastegiko administrazio- eta zerbitzu-langileen buru izango da. (VIII. eranskina)

2. Idazkaria Ikastegia kudeatzeaz arduratzen den pertsona da.

3. Idazkariaren eskumeneak dira:

- a) OOGak eta klaustroak egingo dituzten bileretan, organo horien zuzendariak ezarritakoarekin bat, eztabaidatuko den gai-zerrenda prestatzea, aipatu organoen lehendakariak xedatzen duenaren arabera; eta bileretako akta egitea. Saio horietan, Idazkariak hitza izango du, baina ez botorik.
- b) Ikastetxearen aktak, espedienteak, artxiboak eta dokumentazioa zaintzea eta bertako organoek erabiltzeko prest edukitzea.
- c) Zuzendariaren oniritziarekin, ikastetxeko ekintza edo erabaki eta akordio guztiak ziurtatzea, bai eta ikastetxeko aurrekariak, liburuak eta agiriak ere.
- d) Aginte eta interesdunek edo horien ordezkariak eskatzen dituzten ziurtapenak igortzea, Zuzendariaren oniritziarekin.
- e) Ikastegiko inbentario orokorra prestatzea eta eguneratuta mantentzea.
- f) Ikastetxearen kontabilitateaz arduratzea.
- g) Ikastegiko behar ekonomikoen zerrenda egitea, berezko aurrekontuan integratu behar diren gastuei dagokienez.
- h) Aurrekontua eta aurrekontuaren likidazio-kontuari dagokion dokumentua prestatzea, Zuzendaritza Taldeak edo, hala badagokio, batzorde iraunkorrak OOGak onar dezan aurkezteko.
- i) Kontratazioetarako prestakuntza-ekintzak eta ikastetxeko erabilera komuneko materiala erosteko nahiz inbertitzeko proposamenak egitea.
- j) Zuzendariak eskuordetuta eta horren agintaritzapean, ikastegiko administrazio- eta zerbitzu-langileen buru izatea.
- k) Ikastegiaren funtzionamenduan eragiten duten hezkuntza- eta administrazio-

arauak biltzea eta horietako informazioa langileei, irakasleei, ikasleei edo zuzenean interesa duten organoei eskuratzea.

l) Ikasketa Buruarekin batera, ikasle libre eta ofizialen matrikulak antolatzea.

m) Ikastegiko jarduerari loturiko iragarki eta jakinarazpen guztiak prestatzea eta hedabideetara bidaltzea.

n) Zentroko instalazioen mantentzea ikuskatzea.

o) Zuzendaria eta Ikasketa-burua ordezkatzeko, ez daudenean.

p) Arau-xedapenetan, antolamendu- eta funtzionamendu-arauegia eta zuzendaritza-taldeko kideen jardura-arloen banaketan esleitzen zaizkion funtzioak betetzea.

4. Ordiziako HEOKo idazkaria, zuzendaritza-taldeko kide gisa dagozkion eskumenez gainera:

a. ikastegiko webgunearen arduraduna izango da, zuzendariarekin batera.

b. lan-arriskuen prebentzioko arduraduna izango da, ere.

21. artikulua. Pertsona bakarreko gobernu-organoak izendatzeko eta kargutik kentzeko proposamenak

Pertsona bakarreko gobernu-organoak izendatzeko eta kargutik kentzeko proposamenak Euskal Eskola Publikoaren Legean eta arau-xedapenetan aurreikusitakoarekin bat egingo dira.

22. artikulua. Zuzendaritza-taldeko kideak ordezkatzeko

1. Zuzendaria ez badago, edo gaixo badago, behin-behinekoz ikasketa-burua arduratuko da bere funtzioez.

2. Ikasketa-burua ez badago, edo gaixo badago, behin-behinekoz Zuzendariak izendatzen duen (erabakia OOGari jakinarazita) irakaslea arduratuko da bere funtzioez.

3. Orobat, Idazkaria ez badago, edo gaixo badago, Zuzendariak izendatzen duen (erabakia OOGari jakinarazita) irakaslea arduratuko da bere funtzioez.

4. Zuzendaria ez egoteagatik, edo gaixo egoteagatik, Ikasketa-buruak Zuzendari gisa jarduten duenean, Zuzendariaren eskumen guztiak izango ditu.

IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA-KOORDINAZIOKO ORGANOAK

23. artikulua. Ordiziako HEOn koordinazio-organoak

Urtero finkatuko dira Ikastegian funtzionatuko duten irakasle-taldeak, horietako kideak eta funtzionamendu-erregimena (bileren maiztasuna, lan-plana, informazioa eta beste talde batzuekiko harremanak...). Ordiziako HEOn irakasle-koordinaziorako honako organo hauek egongo dira:

- a) Irakasleak
- b) Tutoreak
- c) Koordinazio Pedagogikorako Batzordea
- d) Hizkuntza Mintegiak, ikasturtea antolatzeari buruzko Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpenez urtero ezarritakoarekin bat.
- e) Ikasturteko eta / edo mailako irakasle taldeak

I. ATALA. IRAKASLEAK

24. artikulua. Irakasleen funtzioak

- a) Hezkuntza Sailak izaera orokorrarekin ezartzen dituen edo ikastegian gobernu-organoek ezartzen dituzten arauak betetzea.
- b) Mintegi Buruari eta Maila Koordinatzaileei ikasturte bakoitzeko programazioa prestatzen eta programazio horren garapena ebaluatzen laguntzea.
- c) Programazioan, hala badagokio, Mintegiko irakasleek txertatu beharreko berrikuntza metodologikoak, bibliografia, helburuak, erabiliko den metodologia, arloaren banaketa eta ebaluazio-sistemak jasoko dira.
- d) Aipatu ebaluazioan aholkatzen diren neurri zuzentzaileak proposatzea.
- e) Dagokion mintegiak ondo funtziona dezan laguntzen duten irakaskuntza-jarduerak edo -ekimenak proposatzea.
- f) Dagokion Mintegi Buruari Maila Koordinatzaileak izenda daitezten proposatzea.
- g) Ziurtapenik ematen ez duten ikasturteetan, ikasle ofizialen ebaluazio-probak prestatzea eta egitea.
- h) Ziurtapena ematen duten ikasturteetan, Administrazioak prestatutako probak

administratzea eta ebaluatzea, bai ikasle ofizialekin eta bai libreekin.

- i) Irakasle guztiek Hezkuntza Sailak proposatutako ebaluazio-irizpideak erabil ditzaten neurriak hartzea, eskakizun-mailak bateratuz, bereizkeria edo desberdintasunak saihesteko.
- j) Proben emaitzak aztertzea, akatsak aurkitzeko eta zuzentzeko, eta metodologiaren aldetik ondo egindakoak sustatzeko.
- k) Edukien kantitate, kalitatea eta maila aldatzea proposatzea, beharrezkoa izanez gero.
- l) Eratu beharreko azterketa-epaimahaien osaketa ezartzea.
- m) Dagokion Mintegi Buruak aurkezten dituen alderdi guztiei buruzko akordioak hartzea. Akordio horiek izaera loteslea dute Mintegi Buruarentzat.
- n) Halaber, Mintegiko irakasleen eskumenekoak dira hezkuntza-ikerketa, metodologia berritzea, programazioan eta ebaluazioan elkarrekin lan egitea, irakaskuntzaren kalitatea hobetze aldera.
- o) Gainerako irakasleei prestakuntza-ikastaroei buruzko beharrezko informazioa eskaintzea eta, hala badagokio, interesgarriak diren ikastaroak irakats daitezten proposatzea. Irakasleen ordutegian astean ordubete dago prestakuntza horretarako.
- p) Ikastegiko beharretatik eratorrita, esleitzen zaizkien kargu eta funtzioak betetzea, hala nola ikasleei mintegietan, liburutegian... arreta ematea.
- q) Klaustroaren, mintegiaren eta dagozkien irakasle-taldeen, nahiz aukeratuta dauden kide anitzeko organoen, bileretara joatea.
- r) Prestakuntza-jardueretan aktiboki parte hartzea, Hezkuntza Sailak eta Ikastegiko gobernu-organoek ezartzen dituzten baldintzetan.
- s) Ikastegiaren antolamendu eta martxa onean laguntzea, Ikasketa Buruaren eta AFAn zehazten diren beste arduradunen koordinaziopean.
- t) Irakasleen tutoretza bere gain hartzea, haien ikaskuntza orientatzeko.
- u) Irakasleei, berariazko irakaskuntza-lanez gainera, Arautegi honetan eta urteko antolamenduan ezartzen denarekin bat, honako funtzio espezifiko hauetako bat ere gauzatzea egokitzen zaie:
 - Zuzentze-funtzioa.
 - Irakasle-taldeez arduratzea.
 - Hizkuntza laguntzaileei orientazio pedagogikoa ematea.

II. ATALA TUTORETZAK

25. artikulua. Tutoretza eta tutoreen izendapena

1. Ikasleen tutoretza eta orientazioa irakaskuntza-funtzioaren zati da.
2. Ordiziako HEOn irakasle guztiak beren ikasle guztien tutore dira.

26. artikulua. Tutoreen funtzioak

Honako zeregin hauek dagozkie tutoreari:

- a) Ikasleei ikasturte hasieran helburuak, eskola-programak eta ebaluazio-irizpideak jakinaraztea. Urtean zehar, hezkuntza- eta ebaluazio-prozesua jakinaraztea.
- b) Ikasle guztien segimendua egitea eta dokumentuak betetzea, azken probetako emaitzak, bertaratze-faltak (aldian behin jakinarazi behar dira) eta gainerako datu adierazgarriak jasoz.
- c) Ikasleen ikaskuntza orientatzea.
- d) Ikasleen ikaskuntza-zailtasun orokorrenei aurrea hartzea eta, ahal den heinean, arreta ematea, programazioa behar bezala egokituta.
- e) Ikasleen segimendu pertsonalizatua egitea.
- f) Tutoreak astean ordu erdi izango du, tutoretza-lanetarako. Ikasleen zalantzetarako ordutegi bat ezarriko da. Zehaztutako ordutegi horretan etortzerik ez balute, tutoreak data egokia ezarri ahal izateko besteko aurrerapenarekin egin beharko dute elkarrizketa-eskaera. Tutoreak ikasle bat deitu ahalko du, eskolako jarduera tratatzeko.

III. ATALA KOORDINAZIO PEDAGOGIKOKO BATZORDEA

27. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaketa

1. Koordinazio Pedagogikoko Batzordea, klaustroak eskuordetuta, irakaskuntza-jarduera koordinatzeko eta Ikastegiko Mintegi guztiak ebaluatzeko helburu nagusia duen organoa da.

2. Koordinazio Pedagogikoko Batzordeko kideak dira Ikasketa Burua eta Mintegi Buruak. Koordinazio Pedagogikoko Batzordearen saioak Ikasketa Buruak deituko eta zuzenduko ditu. Saio horietan, eginkizun zehatz eta puntualetarako, mintegi bateko edo gehiagotako irakasleek parte hartu ahalko dute, Batzordeak hala eskatuta.

3. Koordinazio Pedagogikoko Batzordealkasketa Buruak deitzen duen guztietan edo kideetako norbaitek eskatzen duen guztietan bilduko da.

28. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak

Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen

funtzioak dira:

- a) Mintegiei eragiten dien jarduera akademikoa koordinatzea.
- b) Mintegiei eragiten dien edozein informazio jakinarazi eta bideratzea.
- c) Mintegien eta Eskolaren egitura eta funtzionamendua hobetzera bideratutako proposamenak prestatzea eta Zuzendaritza Taldeari aurkeztea.
- d) Klaustroak bere eskumenetan jardutean egozten dizkion funtzioak.
- e) Ikasketa Buruak aurkezten dituen alderdi guztiei buruzko akordioak hartzea. Akordio horiek izaera loteslea dute guztientzat, Ikasketa Buruarentzat barne.

IV. ATALA. HIZKUNTZA-MINTEGIAK ETA MINTEGI-BURUTZA

Mintegi didaktikoek eta horien buruek urtero beren gain hartuko dituzte Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenean eta indarrean diren gainerako arauetan (X. eranskina) ikasturtea antolatzeari loturik jasotako atazak.

29. artikulua. Hizkuntza-mintegien izaera eta osaketa

1. Irakaskuntzak eskaintzen diren hizkuntzak adina Irakaskuntza Mintegitan antolatuta daude. Horiek dira irakasleak antolatzeko oinarrizko modua eta partaidetzarako eta hobekuntza didaktikorako ohiko bidea.

2. Mintegiko kide dira dagokion hizkuntza irakasten duten irakasle guztiak.

3. Mintegi didaktikoak hizkuntza bakoitzeko berezko irakaskuntzak antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren lan-taldeak dira. Mintegi Buruaren zuzendaritzapean, hizkuntza bera irakasten duten irakasleen arteko koordinazioa bermatzeko helburua dute. Horien zeregina eta lana taldekide guztien erantzukizuna da.

4. Mintegi bakoitzak autonomia-maila jakin bat izango du Klaustrotik, Batzorde Akademikotik eta Zuzendaritza Taldetik markatutako jarraibideen barruan.

5. Mintegi bakoitzak urteko plana ezarriko du, irakaskuntza- eta ebaluazio-jarduerak, helburu eta irizpide pedagogiko nahiz metodologikoak eta irakaskuntzarako beharrezko bibliografia jasoz; plana ikasle ofizial eta libreen eskura jarriko du ikasturte bakoitzaren hasieran.

6. Mintegia astero biltzen saiatuko da. Bilera Mintegi Buruak edo kideen heren batek deituko du. Mintegi Buruak saioetan tratatutako gaien akta jasoko du eta akten liburuan erregistratuta utziko du.

7. Irakasle batek hizkuntza bat baino gehiago irakasten baditu, ordu gehieneko dedikazioa duen hizkuntzaren mintegikoa izango da. Hala ere, irakasten dituen dituen gainerako hizkuntzen mintegi-bileretan eta haren lan eta erabakietan parte har dezake.

8. Mintegiek ikasleen eskura jarriko dute irakaskuntzen programazioa, eta horretan argi jaso behar dira hizkuntza, ikasturte eta maila, zein honako puntu hauek:

- Helburuak
- Edukiak
- Azterketa-eredua
- Ikasleei gomendatutako bibliografia

9. Irakaskuntza Mintegiaren burua Mintegi Burua izango da eta maila eta / ikasturte bakoitzeko koordinatzaile bat egon daiteke.

10. Irakasleen bilerak gutxienez 24 orduko aurrerapenarekin deituko dira eta horiek ahoz edo idatziz jakinaraziko dira.

11. Kide guztiek nahitaez joan beharko dute mintegi-bileretara. Kideetako bat modu justifikatuan ez bertaratzea (beste irakaskuntza-talde batekin bilera, gaixotasuna eta abar) ez da bilera egiteko eragozpena.

12. Mintegiko irakasleen akordioak, aho batez ez badira onartzen, bozka bidez onartuko dira.

30. artikulua. Mintegi didaktikoetako buruak izendatzea

1. Mintegi buruaren izendapena irizpide arrazionaleri erantzunez adostuko da (ikastegiaren beharrak, hautagaiaren egokitasuna eta abar). Hautaketa horrek Zuzendaritzaren oniritzia izan behar du. Mintegietako buruek ezin diote karguari uko egin izendatutakoan, mintegi-burutza guztiek titular bat izateko ikasturte hasierarako.

2. Zuzendaritza-kargu bat betetzea bateraezina da Mintegi Buru izatearekin.

3. Irakaskuntza Mintegi bakoitzeko burua horren arduradun maximoa izango da irakaskuntzari dagokionez eta, oro har, mintegiaren funtzionamenduari dagozkion alderdi guztiei dagokienez.

4. Ahal den heinean, kargu hori txandakakoa izan dadin saiatu behar da.

5. Mintegi buruak bere funtzioetako bat, edo guztiak, mintegiko beste kideren bati eskuordetu ahalko dizkio (gaixotasun-kasuetan eta abar), zuzendaritzaren oniritziarekin.

6. Mintegi Buruak funtzioak bertan behera utziko ditu:

- a) Agintaldia bukatutakoan.
- b) Justifikatutako eta zuzendaritzak onartutako uko egiteagatik.
- c) Zuzendaritzak kargutik kentzen badu.

31. artikulua. Mintegi-buruen funtzioak eta eskumenak

- a) Zuzendaritzaren eta mintegiko irakasleen arteko koordinatzaile irmoa izatea.
- b) Mintegia dinamizatzea eta koordinatzea, irakasleek aktiboki parte hartzeko eta funtzionamenduan laguntzeko.
- c) Mintegiko kideen artean harmonia eta giro ona sustatzea eta bultzatzea eta iritsi berriei arreta berezia eskaintzea.
- d) Zentroko ordezkari ofiziala izatea.
- e) Zuzendariari ikasturte eta / edo mailako koordinatzaileak proposatzea.
- f) Lana mintegiko kideen artean banatzea.
- g) Maila-arduradunak koordinatzea, ikasturte bakoitzean irakatsiko den programazio orokorra zehazteko, indarrean dauden programa ofizialak Mintegi bakoitzaren baldintza zehatzetara egokituz.
- h) Programazioa betetzen dela zaintzea, eskakizun minimoetako eduki eta mailei dagokienez, eta beharrezko ebaluazio-probak antolatzea nahiz proba horietako kalifikazioak ikuskatzea.
- i) Mintegiko irakaskuntza- eta kultura-jarduerak antolatzea, kontrolatzea eta banatzea, Koordinatzaileen eta Irakasleen lana ikuskatuz.
- j) Ikasketa Buruari taldeen ordutegiak eta irakasleen plazak prestatzen laguntzea, Eskolaren beharretan oinarrituta.
- k) Ikasketa Buruari bere Mintegian hautematen duen edozein irregulartasun jakinaraztea.
- l) Mintegi-bilerak deitzea eta zuzentzea, Ikasketa Buruari absentziak jakinaraztea eta bilera horiek aktak egiten direla bermatzea.
- m) Mintegi bakoitzean erabiliko diren ebaluazio-prozeduren aplikazioa planifikatzea eta zuzentzea.
- n) Material berriari loturiko premia eta erosketak planifikatzea: Mintegirako beharrezkoak diren liburuak, argitalpen orokorrak eta material didaktikoa.
- o) Liburuak eta material didaktikoa behar bezala mantentzen eta inbentariatzen direla bermatzea.
- p) Mintegiko irakasleen artean irakaskuntzarako beharrezkoak diren liburuak eta material didaktikoa banatzeaz arduratzea.
- q) Mintegiari dagozkion jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak planifikatzea eta koordinatzea.

- r) Mintegiko kideen prestakuntza eta eguneratze pedagogikoa zaintzea. Irakasleen prestakuntza- eta hobekuntza-jarduerak proposatzea eta / edo koordinatzea, hala nola ikastaro, bilera, hitzaldi, mintegi eta material-aurkezpenak, baita, oro har, interesgarritzat jotzen den oro ere.
- s) Ikasleei eta Mintegiko irakasleei ikastaro, bilera edota atzerriko egonaldiei buruzko, nahiz hobekuntza eta prestakuntzarako interesgarritzat jotzen diren alderdi guztiei buruzko informazioa helaraztea.
- t) Azterketak prestatzen eta artxibatzen direla koordinatzea eta ikuskatzea.
- u) Azterketen emaitzen argitalpena antolatzea.
- v) Taldeen emaitzak aztertzea, nor bere arloan, eta arazo orokorrei erantzutea.
- w) Egokitzat jotzen bada, programan berrikuntzako proiektu espezifikoetako irakaskuntza-jarduera zehatzak txertatzea.
- x) Mintegi-buruak zainduko du programazioa betetzen dela, bai edukietan, bai gutxieneko eskakizun-mailan.
- y) Hizkuntza laguntzaileraren lanak ongi funtzionatzen duela zaintzea (hizkuntza laguntzaileak tutore bat izango du).
- z) Zuzendaritzak Mintegiko jarduerari loturik eskuordetzen dizkion funtzioak.

V. ATALA. IKASTURTEKO ETA / EDO MAILAKO IRAKASLE-TALDEAK

32. artikulua. Maila-koordinatzaileak

1. Maila batean esku hartzen duten irakasleek osatzen duten maila-taldea. Talde horretako kideek zaindu behar dute ataza-banaketa orekatua eta justua izatea, kide bakoitzak dituen atazak kontuan hartuta.
2. Maila-taldeak irakasleak koordinatzeko modu bat dira. Talde horiek, curriculum-proiektuaren esparruan, mailako eskola-jarduerak programatzen eta koordinatzen erabakiak hartzeko gaitasuna dute.
3. Mintegi bakoitzeko irakasleek Mintegi Buruak edo Koordinatzaileak eskatutako lankidetzak eskainiko dute.
4. Mailako irakasleek bilerak deituko dituzte aldi berean eta taldeko irakasle guztiek

joan beharko dute.

33. artikulua. Maila-koordinatzaileen eskumenak

Maila-koordinatzaileen **eginkizunak** dira:

- a) Ikasturte hasieran, helburuak, programa eta ebaluazio-irizpideak zehaztu behar dira, orobat kideen arteko informazio-bideak.
- b) Maila-taldeen egoera akademikoa aztertu behar da, horien behar orokorrak hauteman behar dira eta erantzuna eman behar zaie.
- c) Mailari loturiko berrikuntza-proiektuak edo antzekoak egitea koordinatzea.
- d) Ikasturtean erabilitako materiala biltegiratu eta antolatzea, formatu digitalean eta paper-euskarrian.
- e) Urtero prestatutako materiala berritzea, % 15 inguru.
- f) Dagokion mailan irakaskuntza curriculum-proiektuarekin eta Ikastegiko urteko programazioarekin koordinatzea.
- g) Maila-koordinatzaileak azterketen, ebaluazio-proben prestaketa eta horien ebaluazioa (pilotatzea, taulak eta abar), bibliografia, material didaktikoa eta jarduera osagarriak antolatuko eta ikuskatuko ditu.
- h) Maila-taldearen bileretako gai-zerrenda prestatzea, bilerak zuzentzea, ondorio eta akordioak jasotzea eta horiek betetzen direla zaintzea.
- i) Maila-taldeak prestatzen dituen dokumentu eta materialak, eta erabilera komuneko baliabide didaktikoak, biltzea eta mailaren eskura izatea.
- j) Mintzamen-laguntzailearen lana koordinatzea maila osatzen duten taldeen barruan.
- k) Mailan mintzamen-laguntzailearen lan-baldintzak betetzen direla zaintzea, Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak horretarako argitaratzen duen dokumentuan jasotakoarekin bat.
- l) Ikasketa Buruak esleitzen dizkion bestelako funtzioak.

34. artikulua. Ordutegiak eta taldeak aukeratzea

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ezartzen dituen irizpideak kontuan harturik, ikasketa-buruak zehaztu behar du zer maila eta taldetan eman behar dituen irakasle bakoitzak eskolak, eta klaustro guztiak jakinaren gainean egon behar du, otsailaren 19ko 1/1997 Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeko 36.2.f) eta 41.c) artikuluek xedatzen dutenaren

arabera.

Beharrezkoa den kasuetan, Zuzendaritza Taldeak Ikasturte Hasierako Zirkularreko jarraibideak kontuan hartuko ditu.

35. artikulua. Irakasleak ez bertaratzea, lizentziak eta baimenak

Ikastegi honetako irakasleen lan-erregimena Euskal Funtzio Publikoaren Legearen, Hezkuntza Sailaren xedapenen eta horrekiko lan-akordioen mende dago.

Lizentzia- eta baimen- eskaera eta esleipenak xedapen horien arabera izapidetuko eta emango dira. Barne-erregimenari dagokionez, honako hau ezartzen da:

1. Aurreikusitako absentzien kasuan, irakasleak Zuzendariari absentziaren arrazoia eta iraupena jakinaraziko dizkio eta ikasleei arreta emateko proposamen bat diseinatuko du, Mintegi Buruaren oniritziarekin, beharrezkoa bada.
2. Ezusteko absentziarik gertatzen bada, irakasleak alaitik bizkorren jakinarazi behar dizkio zuzendaritza-taldeari eta mintegi-buruari absentzia, horren arrazoia eta gutxi gorabeherako iraupena. Irakasleak, ahal den heinean, edo Mintegi Buruak ikasleei arreta emateko proposamen bat egingo dute.
3. Ezusteko absentzia baten ondoren laneratzean, horren iraupena edozein izanik ere, irakasleak idatziz jakinarazi behar dizkio zuzendaritzari absentziaren datak eta arrazoiak, dagozkion egiaztagiriekin bat.
4. Absentzia bakoitzarekin batera, bertaratu ez den irakaslearen dagokion egiaztagiri idatzia entregatu behar da. Gaixotasun-kasuetan, baja medikoa aurkeztu beharko da, baita alta ere, laneratzeko unean.
5. Indarrean dauden xedapenen arabera, irakasleen hutsegiteak egun berean Ikuskaritzara zuzenduko dira "Irakasleen Absentismoa" aplikazioaren bitartez

II. TITULUA. ELKARBIZITZA-ARAUAK

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

36. artikulua. Elkarbizitzaren oinarria

Ordiziako HEOk jotzen du bizikidetzaren oinarria hezkuntza-komunitate osoak ikasleak errespetatzea eta babestea dela, orobat ikasleek eskubide eta betebeharrak korrelatiboetan arduraz jardutea, Titulu honetan ezartzen denarekin bat.

37. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

Ikasleek eskubideak abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. eta 21. artikuluko bitartean jasotzen dira. Eskubide horietan jardutea eragozten duten edo eskubide horien aurka egiten duten jarrerak hautematen dituzten irakasleek berehala esku hartu behar dute,

arduradunari hitzez portaera hori ohartaraziz eta Ikasketa Burutzan aurkez dadin aginduz.

38. artikulua. Betebeharrak betetzearen bermea

Ikasleek betebeharrak abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. eta 27. artikuluko bitartean jasotzen dira. Betekizun horiek ez betetzeak hautematen duen irakaslearen berehalako zuzenketa eskatuko du, ikasleari Ikasketa Buruari joateko agintzeari kaltetu gabe, ez betetze horrek hezkuntza-komunitateko beste kideen eskubideei eragiten edo aurka egiten dien kasuetan.

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK

39. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesteko konpromisoa hartu behar dute

Ordiziako HEOk irakasle guztiek parte hartuko dute ikasleei abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak onartzen dizkien eskubideak babesten, uneko gobernu-organoen arautegi eta jarraibideetan xedatutakoari jarraituz.

40. artikulua. Segurtasunari loturiko eskubideen arreta

1. Irakasleen lana da berdinen arteko litezkeen tratu txarren kasuei aurrea hartzea edo, hala badagokio, al bait bizkorren hautematea. Edozein zantzu hautematen bada, berehala jakinarazi behar zaio zuzendaritza-taldeari, dagozkion protokoloak jarrai daitezen.

41. artikulua. Ohorea, intimitatea eta norberaren irudia zaintzeko eskubidea babestea

1. Ordiziako HEOKo gobernu-organoek, tutoreek eta irakasle guztiek ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen ohorea, intimitatea eta norberaren irudia zaintzeko eskubidea babestu behar dute. Irakasleek grabazio-baliabideak eta teknologia berriak erabili ahalko dituzte, helburu akademikoekin eta ikasleen onurarako. Ikasleen eta / edo irakasleen gainerako erabileretarako, zuzendaritzaren oniritzia beharko da.

42. artikulua. Idatzizko adierazpen-askatasunerako eskubidean jardutea

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 14. artikuluan onartzen den ikasleen adierazpen-askatasunerako eskubidea bete dadin:

- a) Zuzendariak edo, eskuordetuta, Ikasketa Buruak ezarriko ditu eskubide hori garatzeko modua, espazioak eta tokiak, eta nolnahi ere, instituzioek eta hezkuntza-komunitateko kideek merezi duten errespetua kontuan hartu behar da. Ikastegiko Zuzendaritzaren iritziz, egokia ez den informazioa espazio horretatik kendu ahalko da. Debeku horrek eragindako pertsonak edo taldeak kexa bat aurkeztu ahalko du OOGaren aurrean.
- b) Nolanahi ere, informazioa aurkezteko prestatuta dauden toki eta espazioetako informazio guztiak zalantzarik gabe identifikatu behar du pertsona, instituzio, elkarte edo talde arduraduna. Informazio hori kenduko da zuzendaritza-taldeak jotzen duenean iraungi egin dela.
- c) Ikasgelen barruan eskola-jarduerari buruzko informazioa bakarrik egon ahalko da.

43. artikulua. Eskoletara bertaratzea erregulatzea

Ikasle ofizialek puntualtasunez eta justifikatu gabeko hutsegiterik gabe joan behar dute eskoletara. Justifikatu gabeko hutsegiteen kopuru maximoa 15 da ikasturteko.

Baimendutako hutsegiteen erdira (8 hutsegite) iritsi diren ikasleen zerrendak iragarkioholean eta HEOn webgunean argitaratuko dira aldian behin. Era berean, idatziz jakinaraziko zaie. Halaber, zerrendak argitaratuko dira 15 hutsegiteen aipatu maximora iristean, eta idatziz jakinaraziko zaie.

Ikasle ofizialak hutsegite kopuru maximora iristen badira, eskoletara joaten jarraitzeko eskubidea galtzen dute, baina ez dute galtzen azterketa matrikulatutako taldearekin batera egiteko eskubidea, eta hurrengo matrikula ofizialean hizkuntza horretan lehentasuna galtzen dute.

Adin nagusiko ikasleen bertaratze-hutsegiteak ikasleek berek justifikatu behar dituzte, edozein lan-harremanetan eskatzen diren egiaztagirien modukoak aurkeztuz. Ikasleak irakasleari emango dio egiaztagiria eskolara itzultzen denean edo, iraupen luzeko absentzien kasuan, absentzia hasi zenetik bi aste igaro aurretik.

Adin txikiko ikasleen bertaratze-hutsegiteak gurasoek edo tutoreek justifikatu behar dituzte. Ikasleak gurasoetako batek edo tutoreak sinatutako egiaztagiri bat aurkeztu behar du. Jotzen bada guraso edo tutore batek behin eta berriz, eta bereizi gabe, justifikatzen dituela ikasleren baten bertaratze-hutsegiteak, Ikasketa Buruak bestelako egiaztagiri batzuk aurkezteko eska dezake.

Justifikatu gabeko hutsegiteak gurasoei jakinaraziko zaizkie, sms, email, gutun edo adin txikikoak eskura ez duen aitaren, amaren edo tutorearen telefono bidez.

Eskolara bertaratzen diren adin txikiko ikasleek eskola hasi eta bukatu arte egon behar dute eskolan. Saioa amaitu aurretik irten behar badu, aitak, amak edo tutoreak sinatutako irteera-baimena ekarri behar du (irteera baimentzeko inprimakia), irteera-ordua eta data adierazita.

Ikasle bat ez bada eskolara bertaratzen, borondatez greba egiten ari delako, hutsegite hori ez-justifikatutzat hartuko da.

44. artikulua. Matrikulari uko egiteko eskubidea

Ikasleek matrikula ofizialari uko egin diezaiokete abenduaren 31 baino lehen. Kausa justifikaturik gabe egiten badute, ikasleek ofizialtasuna galtzen dute eta, horrekin, eskolara bertaratzeko eskubidea, azterketa egiteko eskubidea eta hurrengo ikasturterako ikasle ofizial izaera galtzen dituzte. Baina ez dira uko egindako matrikulari dagozkion deialdiak iragaten.

Aipatu epea baino lehen uko egiten bada izaera pertsonaleko arazo larriak direla eta, bizitokia, ikastegia edo lantokia aldatzeagatik edota Zuzendaritza Taldeak aski justifikatutakotzat ematen dituen beste arrazoi batzuk direla eta, ikasleak ofizial izaten jarraitzen du hurrengo ikasturteko matrikularako (baina eskoletara joateko eta azterketa egiteko eskubideak galtzen ditu). Kasu horietan, ez dira uko egindako matrikulari dagozkion deialdiak iragaten.

Abenduaren 31 eta apirilaren 30a bitartean, behar bezala justifikatutako uko egiteak baino ez dira onartuko. Uko egitea onartzen zaien ikasleek eskoletara joateko eta ikasturteko azterketa egiteko eskubideak galtzen dituzte, eta hurrengo ikasturteko matrikula ofizialerako lehentasuna galtzen dute. Baina ez dira uko egindako matrikulari dagozkion deialdiak iragaten.

Uko egitea onartzen zaien ikasleak libre gisa matrikulatu ahalko dira uko egiten duten hizkuntzan, matrikula libreko daten barruan. Une horretatik aurrera, ofizialtasun-eskubide guztiak galduko ditu.

45. artikulua. Lehentasuna, matrikula-prozesuan.

Ikasturtea normal amaitzen duten eta ofizialtasunari dagozkion eskubideak galtzen ez dituzten ikasleek, lehentasuna izango dute matrikula ofizialeko prozesuan hurrengo ikasturterako, ezartzen diren baldintzetan. Ikasle ofizialek bermatuta dute Eskolan onartuko dituztela, eskuragarri dauden ordutegi eta taldeetan, betiere ez badute urteroko matrikula-prozesua eteten, ez badute ofizialtasuna galtzen eta ez badute ikasturteko deialdi-muga maximoa gainditzen.

46. artikulua. Azterketa-deialdiak

Ikasle ofiziala bazara, gehienez lau deialdi izango dituzu; hau da, bi urtez izango duzu matrikulatzea maila berean. Bi urte horiek agortu ondoren maila gainditu ez baduzu, aparteko/salbuespenezko deialdia eskatzea duzu. Baina kontuan izan, oinarrizko mailarako muga lau urtekoa dela; seikoa, bitarteko mailetarako; eta hirukoa, maila aurreraturako.

Deialdi-muga gainditutakoan, OOGak, Zuzendaritza Taldeak hala eskatuta, dagozkion luzapenak baimendu ahalko ditu:

bi deialdi, ikaslearen baldintza pertsonalen eta matrikulazio-egoeraren eta gelen okupazio-mailaren arabera.

47. artikulua. Maila-saltoak

Ikasle ofizial batek maila bat pasatzeko, urtebete egon behar du HEO batean eskolaratuta egon gabe, edo ziurtatu behar du nahi duen mailan izena emateko beharrezko mailara iritsi dela.

48. artikulua. Maila aldatzea

Ikasle bat maila jakin batean matrikulatu bada aurretiazko beharrezko ezagutzak mailaketa-probaren bidez ziurtatuta, eta behin eskolak hasitakoan mailaz aldatzea erabakitzen badu (matrikula egin eta 3 asteko epean), irakaslearen oniritzia beharko du eta plaza eskuragarriak badaudela ziurtatu.

Ondoren, ezin izango du jatorrizko mailara itzuli eta hartutako erabakiaren ondorioen arduradun osoa izango da. Azterketa ere talde berriarekin egingo du.

49. artikulua. Ordutegi aldaketa

Ikasleek eskola-ordutegia aldatzeko eska dezakete, matrikula egin ostean gertatutako baldintzengatik. Eskolak ahal den heinean erantzungo die eskaera horiei, betiere, irakaskuntza-jarduerari larriki eragiten ez bazaio, ezartzen den prozeduraren arabera.

50. artikulua. Espedientea lekualdatzea eta matrikula bizia

Ikasleek espedientea lekualdatzea eskatu ahalko dute, bizitokia, ikastegia edo lantokia aldatzeagatik edota espedientea jasotzen duen Eskolako Zuzendaritza Taldearen iritziz aski den arrazoiren batengatik. Horretarako, egiaztagiri dokumentatua beharko da. Matrikula bizia lekualdatzen denean matrikula ofizialari bakarrik eragiten zaio, eta eskolaratzeko eskubidea ematen du, gainerako ikasle ofizialen baldintza beretan. Matrikula bizia lekualdatzea eskolak hasten diren egunetik aurrera eska daiteke. Bi kasuetan, Eskola berrira joango da ikaslea, soilik plaza hutsen bat badago dagokion hizkuntzan eta mailan. Plaza hutsik ez badago, ordea, matrikulari uko egin diezaioke espedientea lekuz aldatzea eskatu duen ikasleak edo, bestela ere, bere kasa ikas dezake eta ikasle ofizialentzako azterketa egin.

51. artikulua. Txandakako ikasleak

Ikastegiak aukera duenean (hau da, goizeko talde bat arratsalde ere eskaintzen denean eta horretan plaza hutsak daudenean), txandaka lan egiten duten ikasleei plaza bat eskaintzeko ahalegina egingo du.

Kasu horretan, ikasleak aukeratu duen txanda-erregimena errespetatzeko konpromisoa hartzen du eta ikasgaia eta maila modu antolatuan jarraitzeko ardura osoa hartzen du. Derrigorrez aurkeztu behar dute, ikasturte hasieran, egiaztagiria eta "txandakako ikasle" izaera egiaztatzen duen lan-egutegia.

52. artikulua. Libreko ikasleak

Libreko ikasleak honako maila hauetako azterketak egiteko eman ahalko dute izena: (A2), Oinarrizko maila, (B1/B2) Tarteko maila eta (C1) Maila aurreratua

53. artikulua. Instalazioak erabiltzeko eskubidea

Ikasle ofizialek bakarrik izango dute Ordiziako HEOKo erabilera komunekeko instalazioak erabiltzeko eskubidea.

III. KAPITULUA. EGINKIZUNAK BETETZEA

54. artikulua. Printzipio orokorra

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak ikasleei ezartzen dizkien eginkizunak ez betetzea beti da, gutxienez, portaera desegokia; portaera hori bizikidetzaren aurkakoa izan daiteke, edo bizikidetzarako portaera larriki kaltegarria, hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideei eragiten badie edo, zuzenean, horien aurka egiten badu.

2. Eginkizun horiek betetzen ez direla hautematen duen irakasle orok esku hartu behar du, bizikidetzara doitu ez dagoen portaera hori zuzentzeko, aipatu Dekretuan eta arautegi honetan xedatutakoarekin bat.

55. artikulua. Portaera desegokiak

1. Portaera desegokiak dira lehen aipatu dugun Dekretuko 30. artikuluan zerrendatzen direnak.

2. Ordiziako HEOn, portaera desegokiak aipatu Dekretuan aurreikusitakoaren arabera zuzenduko ditu ikasle horren arduraduna den irakasleak. Beharrezkoa bada, zuzendaritzak parte hartuko du portaera desegokia ebazten.

3. Ikasketa Buruak jarraitu beharreko prozedura bat ezarriko du, betiere, arautegiarekin bat.

56. artikulua. Bizikidetzaren aurkako portaerak edo bizikidetzaren larriki kaltetzen duten portaerak

1. Bizikidetzaren aurkako edo bizikidetzaren larriki kaltetzen duten portaerak dira, Eskubide eta Betebeharren Dekretuko 31. eta 32. artikuluetan zerrendatzen direnak.

2. Honako hauek larritasun bereziko portaeratzat hartzen dira:

- a) Desobedientzia, indiziplina edo adierazpen iraingarri, desafiatzaile edo mehatxatzaileak.
 - b) Azterketa-ereduak edo erantzunetarako kopiak lapurtzea.
 - c) Edozein dokumentu akademiko ofizial aldatzea.
 - d) Ikastegiko lokal, altzari, material edo dokumentuetan kalteak eragitea.
 - e) Ordena asaldatzen duten portaerak.
 - f) Ikastegi-barrutian tabakoa, alkohola edo drogak kontsumitzea. Alkohola kontsumitzeari dagokionez, baimenduta egongo da eskolak antolatzen dituen ekitaldi kulturaletan.
 - g) Nortasuna faltsutzea.
 - h) Eskolako dokumentu edo erregistro bat aldatzea, idatzizko euskarrian edo euskarri informatikoan.
 - i) Aurreko artikuluan adierazitako edozein portaera errepikatzea.
3. Bizikidetzaren aurkako edo bizikidetza larriki kaltetzen duen portaera baten lekuko den edozein irakaslek portaera horren arduradun den ikaslea hitzez ohartaraziko du, Ikasketa Buruaren edo horren ordezkorearen aurrean aurkez dadin aginduko dio eta jazoerak nahiz zuzentzeko berehalako esku-hartzea jakinaraziko ditu, Ikasketa Buruak, Zuzendariarekin adostuta, zehazten duen prozedurarekin bat.

57. artikulua. Bizikidetzaren aurkako eta bizikidetza larriki kaltetzen duten portaerak zuzentzeko prozedura

Bizikidetzaren aurkako eta bizikidetza larriki kaltetzen duten portaerak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan jasotakoa aplikatuko da berezko terminoetan, betiere, gatazka III. kapituluan aurreikusten diren bide alternatiboak erabiliz ebazten saiatuz, har litezkeen legezko neurriak edozein izanik ere.

III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

58. artikulua. Printzipio orokorrak

1. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 16. artikuluan jasotakoa betetze aldera, eta ikasleei beren errendimendu akademikoan ebaluazio objektiboa izateko eskubidea behar bezala bermatzeko, titulu honetan ezarritako berme-sistema onartuko dute, publizitate-, informazio- eta gardentasun-printzipioetan oinarrituta, eta azken kalifikazioen aurrean erreklamazioa jartzeko aukeraren bidez ziurtatuta.
2. 2012ko ekainaren 11n EHAOn argitaratu zen 2012ko maiatzaren 15eko ebaluazio-aginduak zehazten du ziurtapenik ematen ez duten mailetako ikasle presentzialen kalifikazioa lortzeko, azterketaren nota (% 60) ebaluazio jarraituko notari (% 40) gehituko zaiola. Mintegi bakoitzak erabakiko du ebaluazio jarraitua nola egin.

59. artikulua. Publizitatea

1. Ikasketa Buruak bermatu behar du ikasleek eta, adin txikikoak badira, horien legezko ordezkariak, hizkuntza eta mailetako programazioak eskuragarri dituztela, eta horietan helburu, eduki eta lortu beharreko oinarritzko gaitasunek jasota egon behar dutela.
2. Halaber, bermatu behar du mintegi didaktikoek eskatzen diren eduki minimoak eta probak gainditzeko nahiz ziurtagiriak lortzeko ebaluazio-irizpide aplikagarriak ezagutarazten dituztela.

60. artikulua. Ikasleei emandako informazioa

1. Ikasketa Buruak ziurtatu behar du komunikabide arin eta egonkorrek daudela irakasleen eta ikasle edo horiek legezko ordezkarien aurrean, horiek irakaskuntzari eta ikaskuntzari loturiko informazio guztia izan dezaten eskuragarri.
2. Ikasleek eta, adin txikikoak diren kasuetan, guraso edo legezko ordezkariak, errendimenduaren ebaluazioan eragiten duten proba eta ariketak eskuragarri izango dituzte.

61. artikulua. Azken azterketak

1. Ziurtapena ematen duten mailen azken azterketak Hezkuntza Administrazioak proposatuko ditu eta, ziurtapena ematen ez duten mailetan, maila bereko ikasle guztientzako komunak izango dira eta ziurtapena ematen duten azterketen antzeko egitura izango dute.
2. Ziurtapen-probetan, zatiek balio bera izango dute: proba bakoitzeko puntuazio osoaren laurdena, oinarritzko mailaren kasuan, eta proba bakoitzeko puntuazio osoaren bostena, tarteko mailan eta maila aurreratuan.
3. Ahozko azterketaren ordu-aldaketak justifikatuta egon behar dute eta mintegi bakoitzak erabakiko du, kasu bakoitzaren arabera. Aldaketa eskatzeko epea ordutegia argitaratzen den unean hasten da eta azterketaren bezperan bukatzen da. Azterketa beti azterketa-daten barruan egingo da.

62. artikulua. Azken kalifikazioen erreklamazioak

1. Ikasleek, bai ofizialek eta bai libreek, azterketa berrikustea eska dezakete eta pertsonalki ikus ditzakete egin dituzten eta kalifikazio negatiboa lortu duten probak. Horretarako, eskaera bat aurkeztu behar du kalifikazio negatiboa lortu duten proben emaitzak argitaratu eta 48 orduko epean. Irakasle zuzentzaileak zuzenketa berrikusiko du eta ikaslea deituko du, egindako proba edo probak pertsonalki egiaztatu ahal izan ditzan. Berrikuspenaren ondoren, kalifikazioarekin ados ez dagoen ikasleak erreklamazioa aurkez dezake Eskolako Zuzendaritzaren aurrean bi egun balioduneko epean, proba berrikusi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
2. Erreklamazioak honako alderdi hauetako batean oinarrituta egon behar du:
 - a) Probaren helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak curriculum ofizialean eta dagokion mintegiko programazio didaktikoan ezarritakoekin bat ez etortzea.
 - b) Proba horietarako ezarritako ebaluazio-prozedurak eta -tresnak eta / edo kalifikazio-irizpideak gaizki aplikatzea.
3. Hizkuntza Eskola Ofizialeko zuzendaritzak erreklamazioa aurkeztu eta lau egun balioduneko epean emango du ebazpena, kalifikazioa berretsiz edo zuzenduz.

Horretarako, dagokion mintegiari txostena eskatuko dio eta dagokion ikasleari idatziz jakinaraziko dio onartutako ebazpena.

4. Kalifikazioaren ados ez egoten jarraituz gero, ikasleak edo horren legezko ordezkariak (18 urtetik beherako ikasleen kasuan) alegazio-idatzi bat aurkeztu ahalko du Ikuskaritzako Lurralde Burutzan, 48 orduko epean. Helegiterik egiten bada, Hezkuntza Ikuskaritzak honako dokumentu hauek eskatuko dizkio Eskolari:

- a) Ikaslearen erreklamazioa.
- b) Mintegi didaktikoaren txostena eta zuzendaritzaren ebazpena.
- c) Ebaluazioaz arduratzen diren irakasleen txostena.
- d) Helegitearen xede den proba eta dagokion dokumentazio gehigarria.

Hezkuntzako Ikuskaritzak aurkeztutako dokumentuak aztertuko ditu, eta aurrez dagokion mintegiak ezarritako programazioko edukietara eta ebaluazio-irizpideetara egokitzen den ala ez erabaki beharko du.

Nolanahi ere, txostena eta Ikuskaritzaren dagokion proposamena Hezkuntzako lurralde-ordezkariari igorriko zaizkio, zertarako-eta, ebazpena eman dezan, Hezkuntzako Ikuskaritzaren aurrean erreklamazioa aurkeztu zenetik harako 7 egun naturaleko epearen barruan.

5. Eskolak egindako azterketa eta probak, gutxienez, hurrengo ikasturtean gordeko dira.

EUSKO JAURKLARITZAREN ERANSKINAK